

Gora egin du merkataritza elektronikoa egiten duten 10 langile edo gehiagoko enpresen kopuruak Euskal AEko hiru hiriburuetan 2018an

Enpresen erdiek baino gehixeagok kode irekiko programak erabiltzen dituzte, nahiz eta erabilera hori etengabe jaisten ari den 2015etik

2018an merkataritza elektronikoa egin zuten 10 langile edo gehiagoko enpresen kopurua guztizkoaren %29,5 izan zen Gasteizen, %33,5 Bilbon eta %35,2 Donostian 2018an, Eustatek egindako datuen arabera. 2015eko datuekin alderatuta, ehuneko horiek 0,4 puntu igo dira Bilbon, puntu bat Donostian eta 4 puntu Gasteizen.

Eskualdeka, 10 langile edo gehiago dituzten Euskal AEko enpresen %31,6k egin zuten erosketa edo salmentarik **merkataritza elektronikoa**ren bidez. Portzentajerik handiena, Gorbeia Inguruak, %40,6; txikiena, Arratia-Nerbioi, %12,6. Arabako Gorbeia Inguruak eskualdeaz gain, zeina merkataritza elektronikoa dagokionez posizio nabarmenetan egon ohi den, Gipuzkoako Donostialdea (%37,1) eta Tolosaldea (%35,4) eta Bizkaiko Gernika-Bermeo (%34,8) eskualdeetako ehunekoak ere esanguratsuak dira.

IKT ekipamenduetan –Informazioaren eta Komunikazioen Teknologiak– 10 langile edo gehiago dituzten Euskal AEko enpresek ezarpen-maila handiak dituzte. Interneteko konexioaren kasua da, eskualde gehienetan %100etik oso hurbil dauden maiztasunekin, eta %99,2ko batezbestekoarekin denera (2015ean baino 1,4 puntu gehiago). Arabako Mendialdean izan ezik (%89,3), gainerako hermeretzi eskualdeetan eta hiru hiriburuetan Interneteko konexioa duten enpresak guztizkoaren %98 baino gehiago dira.

Era berean, %92,3k **Web-orria** dute, eta igoera nabarmena izan du horrek 2015eko datuekin alderatuta: ehuneko 5,8 puntu gehiago. Horien artean, nabarmentzekoak dira Arabako Ibarrek Araban (%96,8), Bilbo Handia Bizkaian (%95,0), Bilbo hiriburua (%94,9) eta Deba Beherea Gipuzkoan (%94,4).

10 langile edo gehiagoko enpresetan eta lurralde osoan presentzia handia duen beste ekipamendu bat **sare informatikoa** dira. Batez beste, %92,1ek dituzte, baina portzentajezko 2,3 puntu jaitsi da hori 2015etik. Kasu horretan, aipatu behar dira Bizkaiko Enkartzioak (%96,9) eta Arabako Ibarrek eta Arabako ere Gorbeia Inguruak (%96,3 eta %96, hurrenez hurren). Gipuzkoako eskualdeek ezarpen txikiagoa dute; batez beste, %91koa da lurralde osoan; Debagoiena da eskualde aipagarriena, %92,6rekin.

10 langile edo gehiagoko Euskal AEko enpresen %53,1ek **kode irekiko programak** darabiltzate. Bost eskualdek soilik gainditzen dute %60: bik Bizkaian, Gernika-Bermeok eta Enkartzioek (%70,5 eta %66,6, hurrenez hurren), eta hiruk Araban, Gorbeia Inguruak, Kantauri Arabarrak eta Arabako Ibarrek (%65,9 lehenengoan, %62,6 bigarrenengan eta %60,9 hirugarrenengan). Aipatu behar da adierazle horrek etengabe egin duela behera 2015etik aurrera, noiz eskuragarri dagoen seriearen maximoa markatu baitzuen, enpresen %81,7rekin, azken urtean baino ia ehuneko 30 puntu gehiago.

Internetarako sarbidea duten 10 langile edo gehiagoko enpresetan bilakaera positiboa eta ezarpen zabala duen azken adierazle bat da **administrazio publikoekin izapideak elektronikoki** egitea. Izan ere, 2019an mota horretako enpresen %96,3k egin zuten

horrelakorik, 2015ean baino 3,2 puntu gehiago. Proportzio handiagoan daude honako eskualde hauetan: Markina-Ondarroan (%99,4) Bizkaian eta Debagoienean (%98,9) eta Bidasoa Beherean (%98,1) Gipuzkoan. Araban, berriz, hiru eskualdek dute %90 gainditzen: Arabako Lautadak, Gorbeia Inguruek eta Kantauri Arabarrak.

Enpresen erdiek euskara erabiltzen dute beren webgunean

Gure erkidegoan, Web-orria euskaraz dagoela egiaztatu da halakoa duten enpresen erdietan (%50,5). Euskarazko webgunea ohikoagoa da Gipuzkoako eskualdeetako enpresen artean, lurralde bat zeinetan zazpi eskualdeetatik seik %50 gainditzen baitute; eskualdeen ehunekoak %45,6 dira Bidasoa Beherean –txikiena– eta %74 Debagoienean –handiena–. Jarraian, Bizkaikoak daude (batez beste, %45,8), non lau eskualdek gainditzen baitute erkidegoaren maila: Gernika-Bermeok (%78,5), Markina-Ondarroak (%73,2), Enkartzioek (%66,1) eta Plentzia-Mungia (%61,6). Araban (%44,6 batez beste), Arabako Mendialdea (%67,3) eta Kantauri Arabarra (%55,2) dira nabarmentzen.

Euskal AEko IKT ekipamenduak, 10 langile edo gehiagoko establezimenduetan, hiriburu eta eskualdeen arabera (%). 2019

	Internet		Web orria		Sare informatikoak	Kode irekidun programak	Merkataritza elektronikoa (3)
	Konexioarekin	Administrazioarekin izapideak egiten ditu (1)	Badute	Euskaraz (2)			
EUSKAL AE	99,2	96,3	92,3	50,5	92,1	53,1	31,6
Vitoria - Gasteiz	99,2	92,8	89,9	43,5	91,7	55,2	29,5
Bilbao	98,9	96,0	94,9	46,2	93,2	55,0	33,5
Donostia - San Sebastian	99,0	94,5	91,8	56,0	93,1	51,0	35,2
ARABA/ÁLAVA	99,3	92,3	89,7	44,6	91,3	56,3	29,9
Arabako Ibarak/Valles Alaveses	99,9	86,6	96,8	41,5	96,3	60,9	30,8
Arabako Lautada/Llanada Alavesa	99,3	92,2	89,9	43,9	91,5	55,5	29,6
Arabako Mendialdea/Montaña Alavesa	89,3	71,9	80,2	67,3	81,8	39,3	32,9
Errioxa Arabarra/Rioja Alavesa	98,0	88,3	83,5	31,8	92,3	46,0	25,7
Gorbeia Inguruak/Estribac. del Gorbea	99,9	96,5	92,6	44,5	96,0	65,9	40,6
Kantauri Arabarra/Cantábrica Alavesa	99,8	93,5	88,4	55,2	83,8	62,6	28,7
BIZKAIA	98,9	96,9	94,6	45,8	93,2	53,9	30,0
Arratia Nerbioi/Arratia-Nervión	98,7	97,4	86,6	49,9	92,1	47,9	12,6
Bilbo Handia/Gran Bilbao	98,8	95,7	95,0	42,0	93,0	53,4	30,4
Durangaldea/Duranguésado	99,2	95,8	94,2	48,2	94,0	52,8	31,8
Enkartzioak/Encartaciones	99,9	97,8	91,9	66,1	96,9	66,6	17,2
Gernika-Bermeo	99,7	97,4	90,8	78,5	96,0	70,5	34,8
Markina-Ondarroa	98,6	99,4	90,1	73,2	83,7	58,0	32,6
Plentzia-Mungia	98,7	96,7	93,1	61,6	93,0	36,1	26,8
GIPUZKOA	99,5	97,3	90,4	60,0	91,0	50,3	34,5
Bidasoa Beherea/Bajo Bidasoa	99,0	98,1	87,9	45,6	89,8	55,0	31,3
Debarrena/Bajo Deba	99,9	95,9	94,4	60,8	85,4	53,8	31,5
Debagoiena/Alto Deba	99,9	98,9	93,5	74,0	92,6	49,2	34,3
Donostialdea	99,4	96,6	91,8	56,6	92,4	52,0	37,1
Goierri	98,0	96,6	87,0	72,1	89,9	49,4	28,8
Tolosaldea/Tolosa	99,9	96,8	84,4	59,2	90,8	38,9	35,4
Urola-Kostaldea/Urola Costa	99,2	95,5	85,7	67,7	88,4	41,8	31,1

(1) Internet baduten establezimenduen artean, administrazioekin elektronikoki elkarreragiten dutenen portzentajea

(2) Web baduten establezimenduen artean, euskaraz baduteneen portzentajea

(3) Merkataritza Elektronikoren datuak 2018ko abenduaren 31koak dira

Iturria: Eustat. Informazioaren gizaritearen inkesta. Enpresak

Euskal AEko hiriburuen artean, IKT ekipamenduen ehunekoak oso antzekoak dira 10 langile edo gehiagoko enpreetan, baina Bilbo nabarmentzen da administrazioarekin izapide elektronikoak egitean eta Webgunea eta sare informatikoak edukitzean; Donostia, euskarazko Webgunearen eta merkataritza elektronikoaren adierazleetan; eta Gasteiz, hamar langile eta gehiagoko enpreetan Interneterako konexioarekin eta kode irekiko programak erabiltzean.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62